

# Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

## Karbono dioxido emisioak gora etenik gabe

EUROPAKO BATZORDEKO Ikerketarako Zentro Bateratuak eta Herbehereetako Ingurumenaren Neurketarako Agentziak argitara eman dute azken hogeitertean CO2 emisioen eboluzioa erakusten duen txostena. Bertan irakur daiteke karbono dioxido emisioak %45 hazi direla 1990 eta 2010 urteen artean, eta guztira 33.000 milioi tona igorri direla.

Txostenean datu interesgarri bezain harrigarriak daude, honakoak adibidez: Europako Batasuna osatzen duten estatuak %7 gutxitu dituzte emisioak, Errusiak %28, eta AEBek %5 handitu ditu. Japonian, oro har, ez da aldaketa handirik izan igorpenetan, baina aurten goranzko joera garbia agertu dute zentral nuklearren egoeren eraginez. Txinak, berriz, izugarri egin du gorantz, eta une honetan 6,8 tona emititzen ditu pertsonako eta urteko, Italiaren parean.



Ikusten denez, AEB eta garapen bidean dauden estatuak dira emisioetan buru.

Ikusten denez, AEB eta garapen bidean dauden estatuak dira emisioetan buru.



## Wikipediatik automatikoki sortutako liburua

ISRAELGO TEHNION INSTITUTUKO hainbat ikerlarik *Bookit!* aplikazioa sortu dute. Horren bidez, erabiltzaileak emandako hitz gutxi batzuekin, Wikipediako artikulua hautatu eta kapituluak bailiran lotu daitezke, izenburua, aurkibidea eta irudiak erantsiz; hala sortutako liburua on-line irakur daiteke e-booken bidez, edo paperean, inprimatu eta gero.

Aplikazioaren oinarrian dagoen algoritmoak ez du indiskriminatuki bilatzen, era adimentsuan baizik, eta erabiltzaileak emandako datuetan oinarrituz ideia garrantzitsuen analisian egiten du.

Software horrek oraingoz Wikipedian baino ez du funtzionatzen, baina jada planteatu dute beste web batzuetan aritzeko ideia. Hala ere, ikerketa lan gehiago beharko dira web horietara *Bookit!* moldatu ahal izateko.



## Telefono eramangarriak eta minbizia

Danimarkan berriki egindako azterketa baten arabera telefono eramangarriak erabiltzeak ez du eraginik garuneko minbizi kopuruaren hazkuntzean. Ikerketa egiteko, 1982 eta 1995 urteen artean telefono-abonubat kontratatu zuten 358.403 pertsona aztertu dituzte. <http://ttiki.com/32135> (Frantsesez)

## 3D-ko telebista betaurreko berezirik gabe

Berlineko Heinrich Hertz Institutuko eta beste hainbat erakundetako ikerlariak MUSCADE proiektuan lanean ari dira 3D sistemak hobetzeko asmoz, eta jada lehen lorpenak eskuratu dituzte. Besteak beste, lau kameratan oinarritutako sistema batek zuzeneko transmisioak ahalbidetuko ditu.

<http://ttiki.com/32136> (Gaztelaniaz)

## Hondakin-urak, birus ezezagunen sehaska

Gaur egun 3.000 birus inguru ezagutzen dira, baina askoz gehiago dira ezezagunak. Barzelonako Unibertsitatean Rosina Gironés irakasleak zuzentzen duen ikertzaile taldeak hondakin-urak aztertu ditu, eta mundu oso bat aurkitu du han.

<http://ttiki.com/32137> (Gaztelaniaz)

**Babeslea: iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

**iametza**

interaktiboa

[www.iametza.com](http://www.iametza.com)

T.943 37 67 16